

EDITH STEINEN HOLOKAUSTOA

Edith Steinen bizitzari izenburu bat jarri beharko bagenio, "Egi bila" izan beharko luke izenburu horrek. Bere bizitza guztia -paradoxaz beteriko bizitza hain zuzen ere- egi bila lehen-dabizi, eta Egi bila gero egindako bidai batean bihurtu zuen.

Izakien egia, perzepzioaren egia, gizakiaren egia, filofofiaren bidez, mende honetako filosoforik garrantzitsuenekin bilatu zuen eta aurkitu zuela edo egia horretaz jabetzeko bidean zegoela uste zuenean, Teresa Deuna bere bizitzan gurutzatu zitzaion eta Egia aurkeztu zion.

Judaismoa baztertu zuen bere egizaletasuna eta benetakotasun egarria asetzen ez zuelako eta kristautasuna besarkatu zuen, "Ni naiz bidea, egia eta bizia" esan zuen Judutar harek eraikitako erlijioa hain zuzen ere. Bizitzaren egia bilatu zuen eta azkenean berea eman zuen, bere herriagatik holokaustoa eskainiaz.

Holokaustoaren bideak Edith Steinen bizitzan hiru lerro paralelo markatzen ditu:

- bere senide, adiskide eta judutar herrikideen samina: berea balitz bezala hartzen baitzuen.
- bere inguruan hersten joan zen eraso, berak zuen argikusmen finarekin noraino iritsiko zen ikusten baitzuen.
- bere barne aldaketa sakona: agnostizismotik abiatu eta kristautasunaren bidez, Gurutzeko Joan Deuna lagun zuela, "Guru-



Juduen eta hauen ondasunen aurkako eraso gogorren iragarpena

bere alarguna bisitatu zuenean izan zen. Kristautasunera bihurtu berria zen Ana Reinach adiskideari somatu zion barne pakeak eta soseguak hunkituta utzi zuen.

"Hau izan zen nik Kristoren gurutzarekin topo egin nuen lehendabiziko unea, gurutzea daramatenek daukaten jainkozko indarrarekin alegia. Kristoren heriotzatik sortu eta heriotzaren garaile zen Eliza lehenengo aldiz aurkeztu zitzaidan begien aurrean. Une hortan nere sinesgabekeria hautsi zen, judaismoa nere begien aurrean indarririk gabe gelditu zen eta Kristoren argia nere bihotzean piztu zen".

tze zientzia" helmugaraino egin zuen bidaia, Auschwitzeko holo-kaustoan bere bizia emanaz burutu arte.

Ikus ditzagun Edith Stein heriotzara eramanean zuten gertakizunik garrantzitsuenak eta ikus dezagun une bakoitzean berak nola bizi izan zituen gertakizun horiek.

Kristautasunera bihurtu baino lehen, 1917an gurutzeak duen Jainkoaren indarra ezagutzeko aukera izan zuen. Göttingeneko Unibertsitateko Husserlen "Privatdozent" izandako Adolf Reinach Flandriako guduan hil zenean,

Judutar-kristau

Baina Edith Steinek, kristatasunera bihurtzean, judutasunari uko egiten zionik ezin daiteke esan, baizik eta herri hautatuaren kide izatea onartu eta sublimatu egin zuen, bi kontzeptu horiek elkartuz herri horren patu tragikoari aurre egiteko.

Herri judutarraren arazoa bere egin zuen eta bere patu tragikoa ere bere egin nahi izan zuen, martirio kristauarekin burutuaz. Horregatik bizitza emateko beti prest egongo zen:

Nere bizitza ez da neretzat. Herriarentzat baldin bada, orduan izango du nere bizitzak indarra" - esaten zion amari.

Baina badaki ez duela aski izango bere bizitza herriari eskaintzearekin; heriotzarekin sinatu beharko du elkartasun hori.

Horregatik 1930ean zera esaten zuen: **"Alemanian lehendabizi judutarrak jarraikiko dituzte, gero Eliza izango da jarraitua".**

Esan eta izan. 1933an Alemanian judutarren kontrako jazarpena hasi zen.

"Lehenago entzunak nituen judutarren kontra hartutako neurri gogorrak. Baina orain bapatean Jainkoaren argiak jo nau, eta Berak berriz ere eskua bere herriaren kontra jaso duela ikusten dut eta herri horren patua nerea ere badela".

"Badakit Hitler gu denotaz jabetuko dela. Baita nitaz ere"

Eta ulergarria zen kafe kikara baten azukrea poliki poliki eragiten zuen bitartean behatzak dardarka edukitzea:

"Jauna ere ikaratu zen. Gu ez gara bestelakoak".

Baina Maritainek geroago idatziko zuenez *"beragan eman-kortasun oparoa somatzen zen eta martirioan eman behar zuen bere fruitua. Edith Steinen barnetik argi dizdiratsu eta garbi baten jarioa ikusten zen"*.

Reichsgesetzblatt

Teil I

1935	Ausgegeben zu Berlin, den 14. November 1935	Nr. 125
Tag	Inhalt	Seite
14. 11. 35	Erste Verordnung zum Reichsbürgergesetz.....	1333
14. 11. 35	Erste Verordnung zur Ausführung des Gesetzes zum Schutze des deutschen Blutes und der deutschen Ehre.....	1334

Erste Verordnung zum Reichsbürgergesetz.

Vom 14. November 1935.

Auf Grund des § 3 des Reichsbürgergesetzes vom 15. September 1935 (Reichsgesetzbl. I S. 1146) wird folgendes verordnet:

§ 1

(1) Bis zum Erlaß weiterer Vorschriften über den Reichsbürgerbrief gelten vorläufig als Reichsbürger die Staatsangehörigen deutschen oder artverwandten Blutes, die beim Inkrafttreten des Reichsbürgergesetzes das Reichstagswahlrecht besaßen, oder denen der Reichsminister des Innern im Einvernehmen mit dem Stellvertreter des Führers das vorläufige Reichsbürgerrecht verleiht.

(2) Der Reichsminister des Innern kann im Einvernehmen mit dem Stellvertreter des Führers das vorläufige Reichsbürgerrecht entziehen.

§ 2

(1) Die Vorschriften des § 1 gelten auch für die staatsangehörigen jüdischen Mischlinge.

(2) Jüdischer Mischling ist, wer von einem oder zwei der Rasse nach volljüdischen Großelternstücken abstammt, sofern er nicht nach § 5 Abs. 2 als Jude gilt. Als volljüdisch gilt ein Großelternstamm ohne weiteres, wenn er der jüdischen Religionsgemeinschaft angehört hat.

§ 3

Nur der Reichsbürger kann als Träger der vollen politischen Rechte das Stimmrecht in politischen Angelegenheiten ausüben und ein öffentliches Amt bekleiden. Der Reichsminister des Innern oder die von ihm ermächtigte Stelle kann für die Übergangszeit Ausnahmen für die Zulassung zu öffentlichen Ämtern gestatten. Die Angelegenheiten der Religionsgesellschaften werden nicht berührt.

§ 4

(1) Ein Jude kann nicht Reichsbürger sein. Ihm steht ein Stimmrecht in politischen Angelegenheiten nicht zu; er kann ein öffentliches Amt nicht bekleiden.

(2) Jüdische Beamte treten mit Ablauf des 31. Dezember 1935 in den Ruhestand. Wenn diese Beamten im Weltkrieg an der Front für das Deutsche Reich oder für seine Verbündeten gekämpft haben, erhalten sie bis zur Erreichung der Altersgrenze als Ruhegehalt die vollen zuletzt bezogenen ruhegehaltfähigen Dienstbezüge; sie steigen jedoch nicht in Dienstaltersstufen auf. Nach Erreichung der Altersgrenze wird ihr Ruhegehalt nach den letzten ruhegehaltfähigen Dienstbezügen neu berechnet.

(3) Die Angelegenheiten der Religionsgesellschaften werden nicht berührt.

1935ean juduek ezin zuten hauteskundeetan parte hartu

Edithek, ordea, zerbait egin beharra zegoela zioen. Horregatik, Aita Santuari eskatutako audientzia pribatua ukatu ziotenean, gutun bat idaztea erabaki zuen. Eta, Beuroneko Walzer Abatearen bitartez, 1933an Pio XI. Aita Santuari eskutitz bat bidaliko dio Alemaniako Nazional Sozialismoak judutar herriaren kontra zeraman jazarpena eta erasoak salatuaz eta Entziklika bat eskatuaz. Erantzun bezala Aita Santuaren bedeinkapena jaso zuen.

Karmel mendian gora

1933ko Otsailean bere katedra kenduko diote eta irakas-kuntzatik hota judutarra zelako. Eta 1935eko irailaren 15eko "Reicheko hiritarren legea" eta "Alemanen odola eta ohorea zaintzeko legea"ren poderioz bazterturik, Karmeldar izateko aintzinako erabakia berrartzen du eta 1933eko Urriaren 14an Koloniako Karmeliten komentuan sartzen da, Sor Teresia Benedicta a Cruce izenarekin.

Ez doa ihesi ordea. Bere gogo argikusle eta indartsuak zerbait egin behar dela daki. Eta Edith Steinek beste paradoxa batekin erantzuten du: Alde batetik bere herriaren sufrimenduan eta ignominian karmeldar bezala parte hartu nahi du bere gogoz onartutako pairuarekin. Baina beste aldetik, eta Estheren antzera ("**Ni Esther pobre, indargabe eta txiki bat naiz**"), aintzinean israeldar herria otoitzarekin, barauarekin eta bere bizitza arriskuan jarriaz salbatu zuen bezala, Edithek bere izaera Jainkoaren justiziaren eskuetan jarri eta gainera bere herriaren alde lanean hasiko da. Eta hau 1938ko apirilaren 10an egiaztatu dezakegu. Plebizitu eguna zen. Edith Steinek beragan ezohizkoa zen indarrarekin Hitlerren kontrako botua defendatzen du. Goizean goiz Auteskunde Batzordeko ordezkari-tza komentura joaten da mojak ere eginbehar hori bete dezaten. Edith Steinek bere botoa ez zuela eman ikusterakoan, "*Zergatik ez du bozkatu Edith Steinek?*" galdetzen dute. "*Boto eskubiderik ez daukalako*" erantzuten diote. "*Zergatik?*" Eta orduan mojak nahi ez zutena erantzun beharrean aurkitzen dira: "*Bera*

aryarra ez dalako". Eta horrela sekretupean eduki nahi zutena argitara atera zen.

Gestaporekin izandako tirabira honen ondoren, lekuz aldatzea eskatu zuen berriro. Bitartean, judutarren egoera gero eta okerragoa da eta Edith Steinen bizitza arriskuan dago.

1938ko Azaroaren 9ko gauean, "Kristallnacht"en ('kristal gauean') hain zuzen, judutarren kontrako pogromoak gertatzen dira: sinagogen erreketak, judutarrei zanpaketa eta jipoiak, beren dendetan harrapaketak e.a.. Edithek dio:

"Gure herriaren gain zabaltzen ari den gurutzearen itzala da. Oi! nere herriak argiari ateak zabalduko balizkio! Orain gutxienez . Nere herriak bere gain erakarri duen madarikazioa betetzen ari da. Kain zigortu behar da, baina, erruki Kainen gain eskua jartzen duena! Erruki hiri hau, herrialde hau, gizaki hauek, beren gain eroriko baita Jainkoaren justizia judutarrei egin dizkieten irain guztiegatik!".




Ihesi

Hurrengo egunetan Dachau, Buchenwald eta Sachsenhausen-era hogeita sei bat mila judutar deportatu zituzten. Edith, ihes egitera beharturik, 1938ko Abenduaren 31ean Holandako Echteko komentura joango da.

Hemen bere patua bortizki bizi beharko du, bere intuizio fi-narekin garbi aurreikusten baitu etorkizunaren norabidea.

"Jaunarekin hitz egiten nuen eta esaten nion banekiela bere gurutzea zela nere herriaren gain jarria zegoena. Gehicnak ez zuten ulertzen; baina jakinaren gainean zeudenak gogo onez hartu beharko zuten gurutze hori bere gain denen izenean".

1939ko martxoaren 26an, Edith Steinek Prioreari gutun hau idazten dio:

VERBLIJFSVERGUNNING aan:			Handtekening van den houder	15059
Naam: <u>S. t. e. i. n.</u>			Opnieuw verblijfsvergunning verleend tot:	19...
Voornamen: <u>Edith Teresia Hedwig.</u>		Het hoofd van politie,		
Geboortedatum: <u>12 October 1891.</u>		Opnieuw verblijfsvergunning verleend tot:		
Geboorteplaats: <u>Breslau (D).</u>		19... (.....) 19...		
van: <u>3 Februari 1942 (twee en veertig).</u>		Het hoofd van politie,		
tot: <u>3 Augustus 1942 (twee en veertig).</u>		Opnieuw verblijfsvergunning verleend tot:		
Echt: <u>3 Februari 1942.</u>		19... (.....) 19...		
Met hoofd van politie te <u>Echt</u> , dat hiermede verklaart, dat houder <u>lezes</u> niet in het bezit is van een büttenlandsch identiteitspapier en dit ook niet kan bekomen.		Het hoofd van politie,		
 (Handtekening)		Opnieuw verblijfsvergunning verleend tot:		
Opnieuw verblijfsvergunning verleend tot:		19... (.....) 19...		
Het hoofd van politie,		Deze ruimte niet beschrijven		
Opnieuw verblijfsvergunning verleend tot:		Afdruk rechter wijsvinger		
19... (.....) 19...				
Het hoofd van politie,		Alle verblijfsvergunningen worden verleend behoudens eerdere intrekking.		

E. Steinen bere egoitzarako izan zuen azken baimena,
balio gabetzat zigituz joa ("onbruikbaar").

**"Mesedez baimena eskatzen dizut Jesusen Bibotzari
nere burua oparitzat eskaintzeko benetako pakearen
alde: Antikristoaren boterea amildu dadin, eta abal ba da,
beste gerra mundialik gabe, izakien zuzentasuna berritu
dadin. Gaur bertan egin nabiko nuke, honez gero
hamabiak bait dira. Badakit ezer ez naizela, baina
Jesusen hori nabi du eta gaurko egunean beste askori
deituko diete horretarako."**

Antikristoa Hitler zen noski. Gerra mundiala lehertzeaz zegoen. Eta Edith aldare gainean etzanda zegoen. Biktima propiziatario lez.

1939ko Ekainaren 9an bere testamentuan zera idazten du:

"Jadanik Jainkoak neretzat paratuta duen heriotza onartzen dut, bere borondate santuaren menean. Jaunari eskatzen diot nere bizia eta heriotza onar ditzala... judutar herriaren sinesgabekeriaren ordainez eta bereak Jauna onetsi dezaten eta bere erreinuan dizdira osoz etorri dadin, Alemaniaren sabazioaren alde eta munduko bakearen alde".

1939ko irailaren lehenengoan Bigarren Gerra Mundiala (1939-1945) hasten da.

Hurrengo hilean Edith Steinek zera idatziko du:

"Nigan Jainkoaren borondatea betetzea besterik ez da nere helburua. Bere eskuetan dago ni denbora askorako hemen uztea edo laister etorri dezakeena. In manibus tuis sortes meae".

Hurrengo urtean alemaniarrek Holandan indarrez sartzen dira eta Le Paquiereko (Friburgo-Suitza) Karmeldegira berriz ere ihes egiteko gestio berrietan hasten dira.

Pixka bat beranduago, seguruenik judutarrek jasaten ari ziren erasoaldiei buruz zetozen berriak Sor Teresia Benediktari zekarkioten larritasuna arintzeko, Prioreak lan zientifiko berri baten ardura ematen dio: Gurutzeko Joan Deunaren bizitzari eta doktrinari buruz liburu bat idaztea. Eta emaitza *"Kreuzeswissenschaft"* (*"Gurutzearen zientzia"*) da. Sakonki jardungo du egintza honetan, nahiz eta beharrezko bibliografia ezin eskuratu. Atxilotu zuten egunean ere liburu hau lantzen ari zen, Gurutzeko Joanen heriotza paketsua hain zuzen ere. Liburua ez du bukatuko, baina errematea bere martirioarekin emango dio.

Gizonak bere barnea zeharo hustu behar du. Orduan, dena garbitzen duen Jainkoaren suak "maite sugar bizi" bihurtuko du.



Tren-bagoiaren idazkuna: Westerbork-Auschwitz

"Atzera begira, gertatu den guztia onerako, bere salbaziorako izan dela onartzen du; eta argia iluntasunaren erantzuna dela... Hala, Jainkoaren eskuak, erahilez, heriotza bizi bihurtzen duela".

Hemendik aurrera gertakizunak bata bestearen atzetik jarraian datoz.:

1941eko Abuztuaren Holandan "judutar herriaren azken ebazpidea"rekin hasten dira.

"Giza mailan hitz eginaz, nere ahizpa Rosa eta ni une arriskutsuan gaude, baina dakigunez, ez da ezer aldatuko gerra bukatu arte. Konfiantzaz beterik dena Jainkoaren eskuetan utzi dugu eta lasai jarraitzen dugure eginkizunetan".

1942ko uztailaren 4an Le Paquierreko mojak kapituluan bil-tzen dira Sor Teresia Benedikta bere baitan hartzeko proposa-mena aztergai dutela. Aho batez baietza ematen diote.

Astebete geroago Holandako Elizako burukideek Seyss-In-quart, Reicheko Komisarioari telegrama bat bidaltzen diote ju-dutarren deportazioengatik protestatzeko, eta, hilaren 26an,

eliza guztietan irakurtzen da. Gotzain katolikoek gainera idazki pastoral bat iragartzen dute.

Hurrengo egunean Wilhelm Harster, Holandako herrialdeetarako Segurtasun Poliziaren Komandanteak ohar baten kontatzen du: "7-27an Reicheko Komisarioarekin bilera bat egin zen. Reicheko Komisarioak erabaki hauek hartu ditu: ...2. Gotzain katolikoek [Estatuko] gaitan nahastu direnez -parte hartzeko inork deitu ez dielarik-, aste honen barruan judutar katoliko guztiak deportatuak izango dira. Euren aldeko eskakizunik edo erabakirik ez da kontutan hartuko".

Hurrengo egunean Edith Stein jabetzen da Breslauko bere anaiarrebak euren sendi ta guzti Theresienstadteko konzentrazio esparrura deportatuak izan direla.

Biharamunean adiskide bati idazten dio:

"Gertatzen ari zaigun guztiaz jabetuta zaudenez, azkenengo berria bakarrik kontatuko dizut. Suitzak atea zabalduko dizkigu nere ahizpari eta niri. Oraindik zalantzan dago guk hemen irtetzeko baimena lortuko ote degun. Edozein kasutan oraindik asko tardatu dezake. Ez nitzateke larrituko helduko ez balitz".


Hala hobe. Jainkoaren egitasmoak gurutzearekin idatziak zeuden: Kalbarioa prest zegoen, gurutzeak eraikirik, biktimak irispidean.

Atxilotua

1942eko Abuztuaren 2an, SSak Holandako judutar katoliko guztiak atxilotu zituzten. Edith Stein Kalbarioan gora igotzen hasteko ordua dator.

Arratsaldeko 5ak ziren. Gestapokoek Echteko komentuko atea jantzuten Stein ahizpekin hitz egin nahi zutela eta. Mojak koruan zeuden otoitzean. Sor Teresia Benedikta gogoetarako gaia irakurtzen ari zen. Atezaina koruan sartu eta Ama Priorea-

ri belarrira zerbait esan zion. Honek, Suitzatik etorri berri ziren pasaporteak begiratu nahiko zituztela pentsatu zuen eta Edithi esan zion Rosarekin jeisteko. Baina, bada ez bada ere, bi ahizpekin elkarrizketa ate atzetik entzutera jeitsi zen, mojei esan ondoren: -"Gestapo da. Jarrai otoitzean. Momentu larria izan baitaiteke".



Hitler bere ekintza eta propagandan

Eta larria zen. Polizia batek "bost minutu barru komentua utzi behar zutela" agindu zien ahizpa biei.

- "Ezinezkoa da. Klausura hertsia daukagu".

- "Kendu hori [errejak], eta atera hortik!"

- "Lhenago agindua aurkeztu behar didazu".

- "Deitu ezaiozu Nagusiari!"

Bapatean Priorea sartu zen eta SSkocin eztabaidan hasi zen. Bitartean Sor T.Benedikta korura

igo zen. Jaunaren aurrean unetxo batez otoitz egin, mojei erre-zatzeko eskatu eta korutik irten zen Sor Piarekin.

- Baina nora zoaz?

- **Ez dakit. Bost minutu barru komentua utzi behar dut.**

- Baina noruntz?

- **Hori ez dute esan.**

Bitartean mintzalekuan eztabaida gogorra zen.

- *Suitzaren baimena daukate bara joateko eta Alemaniako-aren zain gaude.*

- *Hori gero ere konpondu datteke.*

Gestapoko buruzagiak, Edith Stein beraiekin etortzen ez bada, ondorio larriagoak izango dituela mehatxatuz ixiltzen ditu mo-jaren protestak.

Goian mojak Sor T. Benediktarentzat eraman behar zituenak prestatzen ari ziren. Batek jaten eman zion. Mokau bat baka-rrik hartu zuen eta esan zien Suitzako Kontsulari idazteko.

Eta Edith Stein atxilotuta eraman zuten. Eta Rosa, bere ahiz-pa, berarekin batera. Estalki bat, koilarea bat eta hiru eguneta-rako janaria da daramaten ekipaia guztia.

Bitartean, komentuko atarian haserre bizian pertsona talde bat bildu zen eta SSkoei irain eta mehatxuka hari ziren. Edith-ek lasai-lasai Rosa eskutik hartu eta hala dio:

- **"Goazen gure herriagatik sakrifikatzer."**


Kristori heriotzan laguntzera eta judutar herrikideengatik bi-zia ematera inbitatuz. Herri batek eman zion emakume honi odol bat eta fede bat; orain berak, ordainez, fede zahar eta be-rria bat eginaz, herri horregatik bere bizia eskaintzen du.

Gurutz bidea

Hiriko komisaldegira, eta gero Maastricheko bulegoetara au-tomobilez eramaten dituzte.

Edith Steinek zioenez, bi autotan -baten hamairu eta bestean hamazazpi atxilotu- Amersfoortera eraman zituzten. Baina gi-daria desbideratu zenez, goizaldeko hiruretan iritsi ziren.

Echtetik Amersfoort bitartean soldadu alemaniarak atsegin eta xeheak izan ziren atxilotuekin. Baina Amersfoorten SSkoek zakarki arituko dira, eta bultzaka eta kolpeka zikinkeriaz josi-tako barrakoi batzuetara sartuko dituzte. Burnizko sommiere-tan lo egin behar, komunetara taldeka eta polizien begirapene-



Kontzentrazio-zelaiko su-labak

an joan behar, SSkoen jolas beldugarriak jasan behar (mojak paretaren kontra jarri eta fusilen segurua kenduta apuntatzen jostatzen ziren): une penagarri eta beldugarria! Inork ez baitzekien zer nolako zoria zuten aurrean. Baina hala ere, egoera latz honetan Edith Steinen barnetik pakea dario.

Ignatius Bromberg fraile dominikoak, bertako lekuko izan zenak, hala zioen: *"Mojak talde bertsu bat osatzen zuten, komunitate bat balitz bezala. Brebiarioa eta errosarioa elkarrekin errezatzen zituzten. Denak Edith Stein Nagusi lez onartu zuten, garbi azaltzen baitzen bere baretasunak besteen gain eragin baundia zuela"*.

Han, 9 barrakoian, astelehenetik astearte gauera arte eduki zituzten. Sor Teresia Benediktak lehendabiziko gutuna idazten dio Echteko Nagusiari:

"Scientia Crucis" gurutzea benetan errotik somatzen denean bakarrik lortu daiteke. Hortaz hasieratik

konbentzituta nengoen, eta bibotzez esaten dut: Ave, Crux, spes unica!"

Goizaldean trenez Westerborkeko konzentrazio esparrura abiatzen dira. Konboiak Apeldoorn, Swolle, Meppee eta Hogeveen zeharkatu eta gero, Hooghalenera iristen dira gauez. 1200 bat gizaki ziren. Han, trenetik jeitsi eta oihan eta zelaietan zehar Westerborkeko konzentrazio esparrura bultzatzen dituzte. Han katolikoak beste guztiengandik banandu eta barrakoi berezietan kokatzen dituzte. Guztiek Daviden izarra darumakite bereizgarri.

Araketak oso luze dirau. Eta guztiei argazki bana egiten diete. Gero gizonezkoak emakumeengandik banandu eta talde biak barrakoi diferenteetan sartzen dira. Emakume haiek berriz



Hilobi arrunta, gorpuz beterik

ere Edith Steinen lasaitasun eta dinamismoarekin txundituta daude. Kristoren gurutzea gogoz eramateak dakarren indarra!


Handik bizirik atera ziren lekuko batzuek Edith Steinen nor-tasanak egin zien inpresioa deskribatzen dute:

"Etzauntako aieneak eta etorri berrien urduritasuna eta kezka azaldu ezinekoak ziren. Edith Stein alde batetik bestera zebilen, emakumeak kontsolatzen, eta laguntza eta lasaitasuna eskaintzen, aingeru bat bezela. Ama asko, eromen ertzean, euren umeen ardura egunetan galdu eta etsipen garratzean kiskaltzen zeuden. Sor Teresia Benedikta haur gaixo haietaz arduratuz, elikatu, txukundu, orraztu eta zaindu egiten zituen".

- Zer egiten duzu? galdetzen dio batek.

- **Orain arte, otoitz eta lan; eta emendik aurrera, lan eta otoitz.**

Wielek Jaunak, Holandar Judutarren Kontseiluko enplega-tuak 1950n esango zuen: *"Bapatean moja batez obartu nintzen: inoiz ez dut ahaztuko emakume haren irribarrea: ez zen itxurazko irribarrea, baizik eta bere barnetik ateratzen zen argi hero bat bezalakoa: hori zen agian Vatikanoko kanonizatu-ko duen emakumea. Westerborkeko lagerean ikusi nuenean, berehala pentsatu nuen: Benetan hau gizaki handia duk! Egun batzuetan egon zen Westerborkeko ataka haretan, eta saildu bat bezala zebilen, hitz egiten zuen, otoitz egiten zuen. Bai, benetan saildu bat zen. Elkarrizketa baten esan zuen: **"Mundua kontraesanez beterik dago. Baina azkenean Maitasuna bakarrik geldituko da. Nola bada bestela?"**. Bere hitzen sendotasunak eta umiltasunak entzule guztiak txundituta uzten zituen. Berarekin solasaldi bat izatea beste mundura joatea bezala zen; elkarrizketa bitartean Westerborg desagertzen zela zirudien. **"Inoiz ez nuen jakin zenbait gi-zaki horrelakoak izan zitezkeenik"** esan zuen behin batean... **"Benetan esan, nere herrikideek hainbeste sofritu beharko zutenik ere ez nekien... Orduoro beraiengatik***




Westerbork. Lager honetako logela arrunta

otoi egiten dut. Jaunak nere otoi-tza entzungo ote du? Seguruenik Jainkoak zure negarra entzungo du".

Asteazken hartan agintari batek Edithi jakinarazten dio bere irteera atzeratu egin dela. Hurrengo egunean, "goizeko hamaitketan, Agintaria ikustera joan behar izan nuen - dio Sor Judithek, Edithekin batera zegoen beste moja batek-. *Jende asko zegoen gela txiki batean bere txanda noiz helduko zain. Norbait itzultzen zenean, aurpegi iluna franko ikusten zen: une larriak. Itzaroten zeudenen zurrumurruak, berriz, ikara besterik ez zuten sortzen. "Irtetzeko baimen guztiak ezabatuak izan dira". Txarrenerako prest nengoen. Oraindik ez nekien erabaki hura Amerfoortetik zetozenei zegokiola. Haien artean Karmeldar alemaniarra ikusi nuen. Txandan nire aurretik zegoen. Berarentzat ere irtetzeko baimena errefusatua izan zen. Txuri-txuri zegoen, baina lasai. Eta bere lagunak kontsolatzen saiatzen zen."*

Wielekek, Edith Stein beste guztiakin eramango zutenaren berri izan zuenean, bera salbatu nahian, Utrechtera telefonoz deitu behar al zuen galdetu zion. Baina Edithek ezetz esan zion: **"Ondo egongo al litzateke nik, bataiatua naitzela eta, abantailak lortzea? Nere kideekin patu berbera jasango ez banu, euren bizitza ezerezean geratuko litzateke..."** Eta



S. Joan Gurutzekoaren marrazkia: E. Steinek, hil aurretik, idatzi zuen bere azken idazlan nagusia: "Gurutzearen zientzia. Joan Gurutzekoari buruzko ikerlana".

Rosarekin batera treneko bagoira joan zen. *"Bere irribarrea eta haustezinezko sendotasuna ikusi nituen Auschwitzera bidean".*

"Edith Stein ixiltasunak bereizten zuen beste mojen artean. Nere ustez bere barruan atsekabe biziki sakona zeukan, baina larrialdirik ez. Bakarrik esan dezaket zama astun bat zeramala zirudiela eta bere irribarreak haunditu egiten zuen. Gutxi bitz egiten zuen eta sarritan bere abizpa Rosari begiratzen zion izugarritzko tristurarekin. Orain, hau idazten ari naitzanean, berari eta bere lagunei zer zetorkien aurreikusten zuela

J+M
 Rosa Ki!
 Frente - Wester -
 back Baracke 36
 G. IV 42

Liebe Mutter,
 eine Klostermutter
 ist gestern abend mit Koffe-
 ren für ihr Kind angekom-
 men und will jetzt Brief-
 chen mitnehmen. Morgen
 früh geht Transport (Schle-
 sien oder Tschechoslowakei??).
 Das Notwendigste ist
 Wollene Strümpfe
 2 Decken
 Für Rosa alles warme

Ediñek idatzitako azken eskutitza, hil bezperan.

bururatzen zait. Azken finean, bera zan Alemaniatik ibes egindako bakarra eta horregatik besteak baino gehiago zekien... Berriz diot: nere ustez, gainera zetorkien sufrimendua zuen buruan, ez bere sufrimendua -horregatik oso lasai zegoen, lasaiegi esango nuke nik-, baizik besteena. Barrakoi baten eserita gogoratzen dudanean, Kristorik gabeko Pietà bat iruditzen zait".

Abuztuaren 6an Echteko komentuko Prioreari bigarren gutuna idazten dio:


"Drente-Werterbork, 36 Barraka. 6-4-1942 (errakuntza, 6-8-42en orde) Ama maitea: Komentu bateko Ama bat iritsi zen atzo Abizpa batentzat maleta batekin eta orain gutun bat eramango du. Bihar goiz konboi bat aterako da (Silesia edo Txekoslovakiara?). Beharrezkoena, / artilezko galtzerdiak / bi burusi / Rosarentzat, garbilekuan dagoen neguko barruko arropa, biontzat mukizapiak eta eskuoihalak. Rosak ez dauka hortzeskubilarik, ez eta gurutzerik eta errosariorik ere. Brebiarioaren hurrengo tomoa pozik hartuko nuke (orain arte ederki errezatzeko aukera izan dut). Gure nortasun agiria, jaiotze zertifikatua eta ogi txartela. / Mila esker, agur denoi. / Eskerronez beteriko zurre alaba / Abitu bat eta amantal bat / belo txiki bat"

Hagako Suitzako Kontsulari ohar bat idazten dio:

"Amsterdam C'ko suitzar Kontsuladura, Heerengracht 545. Abaleginak egin itzazu lehenbailehen mugara iritxi gaitzen. Bidaiarako dirua gure komentuak eskuratuko du..."

Westerborkera joandako mezulari batek hunkiturik kontatzen du nola adeitsu baina energiaz aldendu zituen bere errukizko adierazpenak: "Ez dauka garrantzi handirik guri zer datorkigun.

Denetarako prest nago. Ume Jesus maitea ere hemen gure artean dago".



"Ez kezkatu, Jainkoaren eskuetan baikaude".

Poloniara eramango dituzten zurrumurrua zabaltzen da.

Lasaiago egon zitezten, gerran ekialdean okupaturako herrialdeak populatuzera zeramatzatela esan zieten. Baina judutarrak somatzen zuten meategietan eta lantegietan lanik gogorrenetan enplegatuko zituztela.

Kalbario gailurrean

Abuztuaren 6ko gauean presoak esnatu, eta beste konzentrazio esparru batera eramango dituztenen zerrenda irakurtzen da. 987 pertsona dira.

Eta goizaldean, gizon, emakume eta haur horiek konzentrazio esparrua zeharkatzen dute, itzulirik gabeko bidaia hasteko.

Dr. Lenigek idatziko du: *"Gauean egiten ziren garraio hauetako askok Drente eta Auschwitzeko sarraski esparruetan zuten helmuga. Eta talde horretan moja alemaniar bat zihobala ikusi zuten lekukoek, Suitzak bereganatzeko eskaria eginda eduki arren".*

Schifferstadteko geltokian, Edithek antzinako ikasle bat ikusi eta trenetik deiadarka esaten dio: **"Done Magdalenako mojak agurtu!"**.

Eta abuztuan zehar, Freiburgoko Done Liobanen moja batek txartel bat hartu zuen seguruenik bere azken agurra izango zen hitz hauekin: **"Poloniako bidaitik, agur bero bat"** -Ez du jartzen noiz eta nondik idatzita dagoen.

Bidaiaren helburua Poloniako herrixka bat zen: Oswiecim. Han eraiki zuten SSkoak "Auschwitzeko inperua": eraikuntza erraldoi eta arma fabrikaz osatutako eremua. Eta handik gertu Birkenauko barrakoiez betetako esparrua. Poloniarak eta gerran atxilotutako errusiarrak dihardute hemen derrigorrezko lanean, torturapean erori arte. 1941eko udazkenean egin ziren hemen estreinekoz judutarrak gasifikatzeko saioak. Höss, konzentrazio esparruko Komandantea, Eichman eta Himmler ados jarri ziren B zikloia -azido zianhidrikoa-, ordura arte xaguhikari moduan erabilia, gizakiei aplikatzeko. Gero, metodo hau garatu eta orokortu eta gero, gasifikazio-areto erraldoietan 3.000 gizaki behingoz erahilko zituzten. Eta gero sulabeetan erre

Sor T. Benedikta Auschwitzera iristen denean, oraindik sula-be erraldoiak egin gabe zeuden, 1943an eraiki baitzituzten. Horregatik Edith Stein Birkenaun erahila izan zen.

Konboi bat iristen zenenan, aukeraketa egiten zen: 50 urte-tik beherako gizon eta emakumerik sendoenak lanerako bereizten zituzten. Ez zen 51 urteko Edith Steinen kasua izan.

Bere azken orduak horrelakoak izango ziren:

Auschwitzera iristean, ekipaia trenaren ondoan utzi, kamioietan sartu eta hondamendi aretoetara eramango dituzte. Edith gurutzarekin bat egin eta Kalbario gailurrean dago. Baina orain judutarrak eta kristauak gurutze berberean josiak izango dira.

Ikararik ez sortzearren, heriotzara zigortuak "dutxa-gelara" eramaten dituzte, jabei zati bana emanaz, eta garbitu ondoren kafea emango dietela esaten diete. Jantziak erantzeko agintzen zaienena ordea, zer nolako zoria gainera datorkien somatzen dute. Edith inoiz baino elkaruagoa dago bere herriarekin. Eta, judutar askok egiten zuten bezala, bere herrikideekin salmoak



kantatzen sartuko da areto beldurgari hartan; txikitari sinagogan eta gero, karmeldar zenean, komentuko koruan hainbat bider kantatutako salmoak izango dira bere herriarekin lotuko duen uztarria, arnasa galdu arte.

Momentu hartan ulertuko zuen Edith Steinek bere bizitzaren amaierara iritsi zela, Kalbario mendi gailurrera heldu zela eta orain "Gurutzearen zientzian" Doktoregoa lortu behar zuela.

Behin atea itxi eta gero, gas zianhidrikoa sartuko dute gelako sabaitik.

Ez dago hilobirik. Ez hilaririk. Edith Steinen errautsak seguru aski Auschwitzeko zelaietan sakabanatuta egongo dira.

1950eko Otsailak 16 Holandako Justizia Ministeritzak ofizialki baieztatu zuen Edith Steinen heriotza: "Num. 44.074. EDITH TERESIA HEDWIG STEIN, 1891ko Urriaren 12an Breslaun jaioa, Echtekoa, 1943ko [errakuntza, 1942en ordez] abuztuaren 9 hil zen".

Edith Stein, karmeldar judutarrak bere herriaren sufrimenduak Kristok gurutzean izan zuen heriotzarekin lotu zituen. Jesusen berpizkundean, bere garaipenarekin lotuko ditu.

*Juan M^o Arrizabalaga
1998-IX-9*